

INTERNET¹: ARGITARATZEKO MODU BERRI BAT (MANIFESTU TXIKIA)

Xabier Galarreta Velázquez



Dürero

© Marjinalia Bilduma
Lege-Gordailua: SS-34/02

¹ Internet, edo "euskari informatikoa", horixe baita azken batean gaurko eta batez ere biharko argitalpen elektronikoaren arima.

Duela urte gutxi, ordenagailuan Internet instalatu nuenean, literaturarekiko aspalditik dudan zaletasunak akuilatuta, literatur guneak arakatzeari ekin nion lehiaz. Ea zer topatu nuen? Ba, liburutegi birtualak lehenik. Horra zer topatu nuen. Horrez gain, bestelako ekimenak ere topatu nituen, besteak beste: liburudendak, literatur solasaldiak (chat-ak), idazleek eta idazle taldeek jarritako webguneak, literatur katalogoak, liburu solteak...

Liburutegi birtualek bereziki erakarri ninduten, azaltzen nahiko erraza den arrazoi batengatik: ehundaka, milaka liburu dohainik eskaintzen zituztelako. Liburu onak gainera; klasikoak gehien-bat. Eta ingelesez, nola ez! Bai, liburutegi erraldoien atzean, oro har, Estatu Batuetako unibertsitateak daude. Bestalde, milaka liburu ez-baizik kopuru apalxeagoak eskaintzen dituztenen artean, ekimen partikularrak edota talde txikiak ere topa ditzakegu erraz asko. Dena den, *kopuru apalagoi* buruz hitz egitea engainagarria izan daiteke. Izan ere, berrehun liburu, adibidez, liburugintza tradizionalen kopuru bat ere makala ez den bitartean, Interneten "gutxi" dela irudi dakiguke, errealitatean asko izan arren (batez ere, berrehun liburu horiek pertsona bakan batzuen emaitz izan daitezkeela kontuan harturik).

Argitaratzeko teknika berri baten aurrean gaudela ez dago dudarik. Hau ez da inprimatzeko teknikaren bilakaera hiper-sofistikatua; ez,

bilakaera hori, esaterako, gaur egungo moldiztegi informatizatuetan aurkituko dugu. Baina Internet —edota argitalpen elektronikoa²— beste gauza bat da; teknika berria da; aurreko teknikarekin guztiz, erabat, hautsi duen teknika. Liburua inprimatzera ere ez baikara iristen; aitzitik, *egilearen jatorrizko* lana da geure ordenagailura jaisten duguna, geure ordenagailuko pantailan inprimatu gabe irakurtzeko.

Nire ustez, liburugintzaren desmitifikazioa ekarri digu Internetek. Denok badakigu zeinen garestia den liburuak argitaratzea. Beti izan da ikaragarri garestia. Eskuizkribuak lehen, moldiztegi primitiboak gero, industri garaiko lehen moldiztegi "modernoak" (gaur egungoekin alderatuta, benetako "barraskiloak" zirenak)... Nekea, izerdia eta dirua behar ziren (eta behar dira gaur egun ere —tonaka, gainera—) liburuak inprimatuta ikusteko. Hori dela eta, liburugintzaren inguruan, liburuaren gainean, halako mistizismo bat sortu zen. Tira, ia-ia hamabost milioi pezetako kotxea erostea bezala: diruak ezarritako mistizismoa, muga. Beno ba, mito hori da Internetek haustera ekarri diguna. Orain, liburu bat argitara emateak ez baitu dirurik balio: ez da beharrezkoa ez moldiztegirik ez banatzaierik ez liburudendarik. Jaun-andreok: *Barra libre para todos*.

² Argitalpen elektronikoa euskarri informatikoan oinarrituriko edozein izan daiteke: Internet, CD ROMa, disketeak... (CD ROM-ari bereziki ematen diot garrantzia)

Baten batek esango dit: "Beno, *diruak* ezarritako *mistizismoaz* gain, liburuak kulturaren zabaltzaile bezala betetzen duen zereginak ere lagunduko zuen, neurri batean edo bestean behintzat, liburuaren *mitoa* zabaltzen, ezta?". Bai, jakina. Eta egia esan, hori da liburuak eduki beharko lukeen benetako izaera; liburuaren alderdi mitikoa azaldu beharko lukeen arrazoi sakona hori izan behar luke, daukan kostuaren ordeaz. Baina gu gizarte hiperkapitalista batean bizi gara. Eta urreak beti utzi gaitu itsu... Nola azaltzen dira, bestela, idazleen *beltzak* delako fenomenoak? Eta best-sellerrena? Arrazoi asko tarteka daitezke hor, bai. Hala ere, funtsean, dirua da keria guztiorien erruduna.

Noski, posible da honelako galderak ere planteatzea: "Aizu, baina Internet-ek eskaintzen duen euskarria horren merkea izanik, ez al du emaitza modura emango zera... literatura merkea?". Beno, nik egia esan, hasteko esango dizuet jende maltzurra ez dudala gogoko. Bestelako hitzez esanda: Axular, esaterako, ona bada, orduan ona izango da euskarri batean zein bestean. Liburuaren mamia begiratzen diot nik. Eta bilatuko dut beste zerbait, bai, nire egongelako hormak apaintzeko. Gainera, liburu txarrak edo kazkarrak aurkitzeko, ez da beharrezkoa Internetera jotzea, betiko argialetxeetan erruz aurkitzen dira eta halakoak, urrunago jo beharrik gabe.

Dena den, ez da beharrezkoa gehiegikeriatan erortzea. Nik ere gogoko baititut betiko liburuak eta betiko euskarrian irakurri eta argitaratzea. Gauza zinez maitagarria baita liburuak ukitu, orrialdeak hatzarekin itzuli, aleak gure apalategian gordetzea... Liburuak erostea liburuak edukitzea da, gorputz bat edukitzea bezala ia-ia. Nik plazer horri ez diot uko egingo; baina ezta beste plazer batzuei ere (tartean Interneten plazerrari, esaterako).

Goian esan dut betiko argialetxeetan liburu txarrak ere topa ditzakegula. Ez da sekreturik. Hahemen, gero eta ahots gehiago altxatzen ari dira, hain zuzen, liburuen kalitate askotan eskasa salatzeko. Hori Espainia aldean, Frantzia aldean edota Euskal Herrian bertan gertatzen zaigu. Azken batean, argialetxeak enpresak dira, produktu bat saldu behar duten enpresak. Eta produktu hori, liburu da, noski. Zer gertatzen den? Ba, gaur egungo liburu-produkzioa ikaragarri handitu dela. Nazio guztietako editoreek gauza bera diote: gero eta gehiago argitaratzen dela; *gehiegi* argitaratzen dela. Liburu produkzioak irakurle kopurua edota irakurtzeko gaitasuna gaintitu omen ditu. Hona hemen datu esanguratsu bat: Espainiako estatuan urtean argitara ematen diren liburu guztien %70 gillotinan amaitzen dira ia bat ere saldu gabe. Seguraski, liburu guztioriek argitaratzeko, Donostialdearen tamainako baso-azalera birrindu behar izan dute. Eta inork ez ditu liburu horiek irakurri, gainera. Litekeena da, bai, liburu

horiatariko batzuk txarrak³ izatea; baina litekeena da (seguru), ere bai, horietariko liburu asko politak eta interesgarriak izatea. Aldiz, saldu gabe amaitu dira paper-ore bihurtuta.

Niri, egia esan, amorrua ematen dit argitaratzaile bati hauxe entzuteak: "Gehiegi argitaratzen ari gara". Ah, bai? Kultura *gehiegi* zabaltzen ari garela esan nahi du horrek? Tira, ez nekien nik kultura zabaltzeko *mugarik* zegoenik. Txinportak aterako al zaizkigu burmuinetan kultur aukera infinitua izateagatik ala? Zaharrak berri, hi. Beharbada, gauzak beste modu batez azaldu beharko genituzke: "Gure liburugintza tradizionalak muga jo du". Hori bai. Hori beste gauza bat da. Herri bakoitzak bere gaitasunak ditu; eta litekeena da gure herriak, alde horretatik, gehiagorik ezin egitea. Baina horrek ez du esan nahi kultura zabaltzen amaitu dugunik, lagun. Alderantziz, ia-ia hasi baino ez dugu egin eta. Borges-en obra osoa daukagu itzuli gabe; Célinek, "Gauaren Muturreraino Bidaia" liburuaz gain, lan gehiago idatzi zituen (eta oso politak gainera); Navocov ez dugu oraindik euskaraz ezagutzen; e.a. e.a. Gure idazleei dagokienez, baietz idazle eta itzulzaile eta ikertzaile eta kultur gile ospetsuen/ezezagunen kaxoiak argitaragabeko liburuz eta proiektuz josita egon!

³ "Liburu txarrak" esaldiak berez dauzkan konnotazoi subjektiboak kontuan hartu gabe, noski (niretzat txarra dena beste batentzat ona izan baitaiteke; edota alderantziz).

Lehen esan dut Interneteko liburutegirik garrantzitsuenak Estatu Batuetako unibertsitateek jarri dituztela martxan. Beste nazio batzuetako erakundeak ere sarri topatzen dira horrelako proiektu handizale eta erraldoien atzean. Horregatik, nire ustez, hemen Euskal Herrian beste horrenbeste egin beharko genuke. Hasteko, Euskal Herriko Unibertsitateak lehenbiziko euskal liburutegi birtual eta erraldoia osatzen hasi beharko luke. Zeregin hori eta ohore hori, euskal unibertsitatearenak izan beharko lirateke. Liburutegi birtual hau publikoa, irekia eta dohainekoa izan beharko litzateke. Baina ekimenak ez dira hor bukatzen. Argialetxeak, esaterako. Zer egin dezakete argialetxeek Interneten? Bada bilduma paraleloak martxan jar litzakete. Azalduko dizuet zer den hori: betiko liburugintzari eustez gain, Interneten beste liburu bilduma batzuk eskain litezke. Zer-nolako bildumak? Ba, hasteko, denetatik, mota guztietako bildumak. Bila genitzake, hala ere, halako berezitasun batzuk. Esaterako, liburu agortuak, salmentarik ez duten liburuak, liburu deskatalogatuak, bat ere komertzialak ez diren gaiak jorratzen dituzten liburuak (antzerkia, entseia, poesia, zientzia, filosofia, historia), literatura marjinala (bakan batzuei bakarrik gustatzen zaiena). Ez dakit, euskara gaiztoko euskaldunei txoko bat eta guzti egin lekieke⁴. Ez legoke mugarik, Interneten

⁴ Bai, eta zergatik ez? Zenbat euskaldunberri daude gaur egun? berrehun mila? eta horietatik zenbat ari dira euskaraz bizitzen euskaldunzaharren eredutik kanpo? Euskaraz

argitaratzeak dirurik balio ez duelako. Liburua baino ez daukagu Interneten, azalik gabe, presentzia fisikorik gabe, ia-ia balio ekonomikorik gabe. Eskua ordenagailuaren pantailan sartu eta hitz likitsu eta itsaskorrez josita ateratzen dugu. Hori da kultura. KULTURA LARRIA, MAIESTATIKOA.

Liburu agortuak eta liburu deskatalogatuak aipatu ditut. Galdera bat egingo dizuet: non daude duela hamabost urte argitara emandako liburuak? non daude duela hamar urte argitara emandako liburuak? Beharbada, denboran atzeraegi egin dut. Saia gaitezen berriro: non daude duela bost urte argitara emandako liburuak? Eta iaz argitara emandako mila eta berrehun izenburuak, non daude? Gehientsuenak, inon ez. Antza denez, liburu baten bizitza hiru edo sei hilekoa da. Epe horretan saldu izan ezik, akabo. Liburusaltzaileek dendatik aterako dute, banatzaileei itzuliko diete liburuak. Eta hortik aurrera, gillotina izango du zain. Zenbat milioi pezeta gastatzen ditugu urtean, sei hilabete barru desagertuta egongo diren liburuetan? Eta zer nolako frustrazioa ez dakarkio liburu horren

bizitzera bultzatu baditugu, zergatik ukatu behar diegu euskaraz idazteko eskubidea? garrantzitsua al da euskaraz idaztea euskaraz bizitzea baino? garrantzitsua al da ipuin bat nola edo halako euskaraz idaztea, seme-alabekin nola edo halako euskaraz hitz egitea, bizitzea baino? zergatik ukatu behar diegu dirurik balio ez duen euskarri batean argitaratzea? Gainera, egia da, bai, armiarmek, esaterako, atzerako bat eragiten digutela euren presentzia hutsez. Baina armiarma batek ez dio atzerakorik eragiten beste armiarma bati.

egileari/itzulzaileari/argitaratzaileari, nekez eta dirutza handiak ordaindurik hain epe laburrean arrastorik utzi gabe desagertuta dagoela ikusteak? Gaur egun, gure literaturako idazlerik/itzultzailearik onenek badauzkate linboan ez dakit nik zenbat liburu. Agorturiko liburuekin eta deskatalogatuekin soil-soilik argialetxe batek Interneten martxan jar lezakeen bilduma, ehundaka (edota milaka) alez osaturik egon liteke. Pentsa, hogeitaz hobei mila liburu argitara eman baditugu, eta horietatik gehientsuenak desagertuta badaude...

Itzulpen teknikoak ere beste atal interesgarri bat izango litzateke. Labur arituko naiz puntu honen gainean. Batzuetan, itzulpen teknikoetan mota guztietako gaiak jorratzen dituzten liburuak aurki ditzakegu, zinez politak edota entretenigarriak: erreportajeak, historia, arkeologia, arkitektura, arte kritika, ikuskizun askoren lekukotasunak, hizkera-ereduak, filosofia, pedagogia... Egia esan, batzuek uste dute literaturak bakarrik eskain ditzakeela gai interesgarriak. Eta ez da egia. Areago, itzulpen tekniko batzuk nobela kazkar asko baino politagoak eta entretenigarriagoak izan daitezke. Aldiz, itzulpen tekniko askoren azken helburua ez da moldiztegia; beraz, askotan lan horiek sekula ez dira argitalpen bihurtzera iristen, beste helburu batzuk bete behar dituztelako, askotan helburu puntualak direlarik (puntualak bezain iragankorrak, "efimeroak"). Jakiteak ez du tokirik betetzen

Internet-en (eta literalki hala da, bai, ez baitu egiatan espazio "fisikorik" betetzen).

Horrez gain, posible ere izango litzateke idazlez edota itzultzailez osaturiko talde txikiek webgune erraldoiak, ehundaka liburuz osaturikoak, aurrera ateratzea. Beste proiektu polit bat izan liteke euskal klasiko guztiak sistematikoki biltzea. Baina ez obra guzti-guztiekin, obra-zatiekin baizik. Nire ustez, euskal klasikoak euskaldun guztiok ezagutu beharko genituzke. Baina hori zaila da gaur egun. Har ezazue Euskal Herriko liburudendarik onena, handiena, euskaltzaleena; begiratu ea zenbat euskal klasiko dauzkaten apalategietan. Hainbat aurkituko dituzue, bai. Baina klasiko guztien %5 baino ez duzue topatuko. Eta gainera, liburu horietariko asko nahiko garestiak izan daitezke. Nola arraio ezagutuko dugu irakurle ez-espezializatuok geure euskal klasikoen ondarea, inon modu sistematikoan eta modu ordenatuan jasota ez badago? Nahiko garbi ere esan dut ez dela beharrezkoa euskal klasiko bakoitzaren obra osoa bildu eta Interneten jartzea. Ez. Nahiko da euskal klasiko bakoitzaren obra (-zati) bat (esaterako, obra errepresentagarri bat aukeraturik, aurreneko 50 orrialdeak nahikoak dira euskal klasiko horren ortografia, tematika, nortasuna, hizkuntza-estetika, e.a. zeintzuk diren atzemateko). Hori oso proiektu polita izan liteke. Agian, Euskaltzaindia edo Euskal Filologia Fakultatea izan litezke egokienak horrelako proiektu bat gauzatzeko. Koldo Mitxelenako funtzionari euskal kulturaz ongi

jantzitako baten batek ere egin lezake lan hori (azken batean, gauza txukunak egiteko, askotan borondate onarekin aski da eta).

Beste webgune interesgarri bat idazleen webguneak izango lirateke. Eta idazleenak diodanean, ez naiz literaturgileek jarritako webguneei buruz soil-soilik ari. Historiagileak, arkeologoak, geografoak, literatur kritikariak, irakasleak, doktoretza-tesiak prestatu dituzten unibertsitarioak (doktoretza-tesiak webgune edo helbide elektronikoko bakar batean biltzea, esaterako, emaitza harrigarriak eman litzake). Denak alegia; idazten duten guztiak. Zenbat irakasle ez ote daude, liburu bakar bat sekula argitaratu ez dutenak, lantzen dituzten gaiak komertzialak ez direlako? Karrera askok izan duten beherakada (esaterako, historia ikasketek izan dutena) horri loturik ere egon liteke, neurri batean bederen (lizeoetan historia irakasten duten irakasleek nolako aukerak dituzte historiako garai desberdinei buruz daukaten ikuspegia, interpretazioa, ezagutzera emateko? non aurkituko dute argitaratzaile bat?). Beno bada, kulturgile horiek guztiek izan lezakete euren webgune propioa. Eta hogei, berrogei urteren buruan, webgune horietan islaturik, lan eta ibilbide profesional mirezgarriak aurki genitzake. Bai, kulturgile hitzak norabide berria hartuko luke; eta orduan, normala izango litzateke zahartzarora iritsitako kulturgileak aurkitzea, 100 izenburutik gorako obra bat beren atzean utzita. Egia esan, ohiko "neurriak" apur bat eskas gelditzen ari

zaizkigu. Esaterako, liburuak orain arte zenbakitu egin ditugu; orrialde kopuru bat eman diegu liburuei, nolabait neurri horretaz baliatu baikara liburuaren tamaina neurtzeko. Gaur egun, ordea, somatzen hasiak gara bestelako neurriak erabiltzeko premia, askotan liburuaren edota obraren tamaina askoz hobeto espresatzen digutelarik: hitz guztien zenbaketa, karaktere-kopurua, byte zenbatekoa...

Bestalde, harrigarria da zer-nolako miseria ekonomikoa dagoen idazleen artean. Salmentetatik ez da inor bizi. Beka edota dirulaguntzengatik izango ez balitz, akabo idazle profesionalak. Eta beken edo dirulaguntzen bidez bizitzea, berez, nahiko arriskutsua eta ezbaia gerta daiteke etorkizunari begira. Dirulaguntzak, ordea, gaizki aprobetxatuta daude gaur egun. Demagun 2.000 aleko tirada atera dutela liburu batetik. Demagun horrek izan duen gastua milioi bat pezetakoa izan dela. Demagun liburuaren prezioa 1.500 pta.koa dela. Egileari dagokion %10aren arabera, 2.000 aleak salduta ere, 30.000 pezeta zorritsu baino ez litzaizkioke egokituko. Tira, ijitoen pareko senti ez dadin, 60.000 pta. ordaintzen diote argitaletxeek (zenbait argitaletxek). Eta bere buruaz beste egin ez dezan, 500 ale besterik saldu ez duela ikusitakoan ez diote dirua itzultzeko exijitzen. Baina segi ditzagun *lumeroak* egiten. 2.000 ale bider 1.500 pta. berdin 3.000.000 pezeta. Horra hor 2.000 aleko salmentaren emaitzak, ale bakoitza 1.500 pta.n salduta: hiru milioi pezeta. Eta horietatik, %10eko

ordainaren arabera, 30.000 pta. izango lirateke egilearenak. Gainontzekoak nora doazen? Ba inprentara, banaketa-etxera, liburu dendara, argitaletxera (gutxi) eta aziendara. Aurreneko biak dira zatirik handiena daramatenak. Gainera, moldiztegiaren irabazia segurua da (liburuia salduko da ala ez da salduko: baina moldiztegiak berdin-berdin kobratuko du, noski); banatzaileekin ere uste dut gauza bera dela, baina ez nago oso ziur. Tira, hona hemen ondorioak: egileari bere lana argitaraturik ikustearen poza, satisfakzioa, gelditzen zaio. Ez da gutxi, egia esan (eta hironiarik gabe esaten dut). Baina horrek idazlearen profesionaltasunerako zer suposatzen duen imajinatzea ez da zaila: hilarria, bere ibilbide profesionala ixten duen hilarria.

Moldiztegia eta banatzaileak dira liburuaren kostu-portzentaiarik handienak jasotzen dituztenak. %80 inguru bien artean, uste dut. Gainontzekoa, esan bezala, liburu-saltzailearen, argitaratzailearen eta idazlearen artean banatzen da. Beno ba, zer gertatzen da Interneten argitaratzen dugunean? Ba ez dagoela ez moldiztegirik ez liburu banatzaileerik. Horra zer gertatzen den. Liburu batek daukan kostu osoaren %80 desagertu egiten da. Nire ikuspegitik, argitaletxeak, hor lortzen den aurrezpen ikaragarria liburu-egileari askoz hobeto ordaintzeko erabili beharko luke. Moralki, hori da gaur egungo argitaletxe serio batek pentsatzen hasiko beharko lukeena. Nire iritzian, noski (nik ez baitut hitz egiten herriaren izenean, bizkar emanda daukaten

herri oso baten izenean hitz egiten duten politikari kazkar askok hitz egiten duten bezala). Begira, beste modu batez ere planteatuko dizuet. Hamar-hamaika urte daramatzat itzulpen teknikoak egiten, autonomo gisa eta gizarte segurantzian alta emanda. Ez naiz aberastu, ezta probetu ere. Urte luze horietan denetatik ezagutu dut: bolada onak eta bolada ez hain onak. Tira, ba. Kontua da itzulpengintzan ari garenek badaukagula tarifa bat (edo, hobeto esan, tarifa bat baino gehiago ditugu, proposatzen dizkiguten lanen arabera). Dena den, esan dezagun batez beste 2.000 pezeta orriko kobratzen dugula; edo 8 pezeta hitzeko; edo 1.20 karaktereko. Horrekin bai, bizi egin daiteke, lana egonez gero behintzat. Baina literaturan hori erabat ezinezkoa da. Idatziko duzu 30 orrialdeko ipuina edo idatziko duzu 300 orrialdeko nobela: berdin-berdin pagatuko dizute (60.000 pta., eta kontentu, liburua argitaratu dizutelako). Ea ulertzen didazuen: ez naiz argitaratzaileen aurka ari; liburuak liburudendara iritsi arte egiten duen bidea badakit oso-oso garestia dela. Baina, horregatik mintzatzen ari naiz Argitalpen Elektronikoaren alde. Orain, lehenbiziko aldiz, bestelako aukerak dauzkagulako.

Beste puntu interesgarri eta garrantzitsu bat, idazleen profesionaltasunari begira batik bat, dirulaguntzen kontua izango litzateke. Gaur egun, demagun argialetxe bati urtean 1.500.000 pezetako dirulaguntza eman diola Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak edo Foru Aldundiko Kultur

Departamentuak. Baina, horrekin, zenbat liburu ematen ditu argitaletxe horrek argitara? Bi, hiru...? Aizue, emaiozue 2.000.000 pezeta kurturgile on bati; esaiozue urtero-urtero 2.000.000 pezeta emango diozuela, bere lana zintzo arraio bete dezan. Eta ikusiko duzue urtearen buruan norainoko emaitzak emango dizkizue! Liburu bat...? Baita hamar ere! Mota guztietako lanak gainera: itzulpenak, ipuinak, gogoetak, iritzi artikuluak, erreseinak, zirriborroak, narrazioak, poesia, idazle klasikoen transkripzioak, saio bat edo beste... Tira, ohiko liburugintzan, moldiztegian eta banaketa etxeetan xahutzen dugun dirutza liburu egileei ordaintzeko erabiliko bagenu, beste kuku batek joko liguke. Eta kalitatearen aldetik ere gure liburugintzak gora egingo lukeela ez dut zalantzarik txikiena. Bai, halako zerbait lortu beharko genuke etorkizunean: idazleek itzultzaileen antzeko irizpideak erabiltzea, euren lana baloratzeko (tarifak jartzea, alegia).

Tira, ba. Ideia askotxo islatu ditut "artxibo" honetan. Seguraski, askoz gehiago esan daiteke oraindik Interneten edota Euskarri Elektronikoa argitaratzeari buruz. Hau hasiera baino ez da eta (ikus al duzue Adobe Acrobat programa erabilia nolako emaitza politak lor daitezkeen irakurketari begira?). Gogoan ditut Torrealdairen hitz batzuk... Kexu zen berrogei urterekin euskal idazlerik gehientsuenak desagertzen direla, hau da, ia-ia momenturik onenean idazkintza uzten dutela. Zergatik? Beno, ez da zaila horren arrazoia

asmatzea. Berrogei urterekin gehienok gabiltza hamaika erantzukizunetan itota: familia, lana... Literaturak ez du sosik ematen; eta sosik ematen ez duenez, dirua irabazi beharra daukagu literaturarekin zerikusirik ez daukaten lanetan jardunda. Gero eta denbora gutxiago irakurtzeko; gero eta denbora gutxiago idazteko... Azkenik, idazteari bizkar eman behar; edo hobeto esan, idazteko bulkada, beharra, gogoia hondatzen zaizkio idazleari. Horrek ez du bueltarik. Eta horrela den bitartean, ez dugu inoiz jende benetan profesionala gure artean izango.